


LASTERKETAREN ARAUDI OROKORRA

1.- DATA ETA LEKUA


Ordiziako Mendi Erdimaratoia eta maratoia, 2021ko urriaren 17an, goizeko 08:30etan izango da. Irteera eta amaiera puntua Larraitz izango da.

2.- IBILBIDEA

MARATOI ERDIA (20 Km); lasterketaren ibilbide laburtua da. 20 km-ko ibilbidea duelarik. 950m desnibel positibo.



MARATOI DISTANTZIA (40 KM): Larraitz eta San Miguel bitartean egiten den lasterketa, guztira 1550 m desnibel positiboa dauka.



3.- KATEGORIAK

Kategoriak hauexek izango izango dira: Mutiletan; Master+45, Senior, eta -23; mutiletan eta nesketan Master+40, Senior, eta -23 .

4.- IZEN-EMATEA ETA PREZIOA

Izen ematea www.kronoak.com webgunean egingo da. Azalpen guztiak bertan egongo dira. Egunberean ezin izango dira izen ematerik egin.

Erdimaratoia: 25 euro

Maratoia: 35 euro

5.- SEGURTASUNA

Antolakuntzak ardura zibileko eta istripuko aseguruak izango ditu. DYAre laguntza izango dugu.

Antolakuntzak parte-hartzaile guztiei mediku-azterketa bat egitea gomendatzen die. Norberak bere gain hartu beharko du kirol jarduerak dakarren arriskua.

Derrigorrezkoa izango da korrikalari bakoitzak mauka luzeko xira eramatea.

6.- COVID 19a dela eta korrikalarientzat neurri bereziak

Korrikalari bakoitzak bere musuko propioa ekarri beharko du eta lasterketa hasi eta lasterketako lehenengo langa pasatzerakoan kendu ahalko du eta gorde. Lasterketa bukatzerakoan berriz ere jarri beharko du.

Ano postuetan jan eta edateko, atzera erretiratu beharko da segurtasun distantziak errespetatuz.

Korrikalari bakoitzak bere edalontzia eraman beharko da eta berau beteko da.

37 gradutik gorako temperatura ematen duten korrikalariei ez zaie proban parte hartzen utziko. Korrikalari poltsa jaso ahalko du.

7.- SEINALEZTAPENA

Ibilbidea behar bezala seinaleztatuta egongo da, kartel adierazleekin baita distantzia ere.

8.- HORNIDURA

Ano postuak hauexek izango dira:

Erdimaratoia:

Alotza Km 5 eta Km 15 km: ura

Igaratza Km 10: ura, platanoa eta gela

Maratoia:

Alotza Km 5 eta Km 35: ura

Igaratza Km 10 eta km 30: ura, platanoa eta gela

Guardaetxe Km 15 eta km 25: Ura eta platanoa

San Miguel km 20: Ura, platanoa eta gela

9.- SAILKAPENA

Sailkapena Majori Kiroldegiaren sare sozialetan, webgunean eta kronoak.com webgunean argitaratuko dira behin azken parte-hartzailea iritsitakoan.

10.- SARIAK

Egunean bertan sariak banatuko dira modu pribatuan (ez da publikorik baimenduko)

1. postua: 150 euro eta oroigarria
2. postua: 100 euro eta oroigarria
3. postua: 50 euro eta oroigarria

23 urte azpikoek eta masterrak oroigarriak izango dituzte.

11.- DORTSALEN BANAKETA

Dortsal guztiak zuzenean irteera-gunean, horretarako jarriko diren karpetan banatuko dira, seinalizazioa eta segurtasun distantziak errespetatuz, goizeko 7:00etatik aurrera.

Derrigorrezkoa izango da musukoa erabiltzea uneoro eta dortsala eman aurretik tenperatura neurtuko da.

Derrigorrezkoa izango da NANA aurkeztea dortsal-txipa kentzeko.

12.- IRTEERA ETA HELMUGA

Irteera bateratua izango da. Lasterketa baino bi minutu lehenago irekiko da irteera gunea. Musukoarekin egon beharko dira lasterkariak eta langara iritsi ondoren musukoa kendu ahalko da eta bakoitzak gorde. Helmugara iritsi bezain laister berriz ere derrigorrezkoa izango da musukoa jartzea.

13.- INGURUGIROA

Lasterketa mendi inguru zein lur pribatuetatik igaroko da. Ingurunea ahal beste zaintzeko, kontrol-guneetatik kanpo zaborrak ez botatzeko eskatuko zaie partehartzaile guztiei. Horretarako, 25 metrora, zabor kuboak jarriko dira.

Oinarrizko arau hau betetzen ez duten korrikalariek, probatik kanpo utziko dira.

14.- KONTSIGNA ETA DUTXAK

Ez da kontsignarik ezta dutxarik egongo.

15.- IBILBIDEAREN SEGURTASUNA

Antolakuntzak, proba ordezeko ibilbide batetik desbideratzeko, beharrezkotzat jotzen dituen aldaketak egiteko eta, eguraldiak edota beste eragileren batek hala eskatzen badu, lasterketa bertan behera uzteko eskubide osoa izango du.

16.- LAGUNTZA EZBEHARRETAN

Partehartzaileek betekizun izango dute istsripuren bat izan duen edonor laguntzea eta kontrol-guneetan edozein ezbeharren berri ematea.

17.- ERANTZUKIZUNA

Proban izena ematen duten guztiek, borondatez eta norbere arduraz parte hartzen dutela ulertzen dute. Horregatik, partaideek eta beraien oinordekoek erantzunkizun zibilari dagokionez, antolaketaz arduratzen diren erakundeak, laguntzaileak, babesleak zein beste partaideak, ez salatzea eta kargu horietatik guztietatik libre uztea onartzen dute.

Parte-hartzaileen objektu pertsonalei dagokienean ere ez du ardurarik izango.

Parte-hartzaileek izango dute euren buruari edota hirugarren pertsonari eragindako kalte ororen erantzukizuna.

18.- PARTAIDEN KOPURUA

Probaren gehienezko partehartzaile kopurua:

-Maratoi erdian 250 korrikalari izango dira

-Maratoian gehienez 150 korrikalari izango dira.

19.- ARAUDIAREN ONARPENA

Parte-hartzaile guztiek, parte hartzeagatik, araudi hau onartzen dute. Bertan agertzen ez dena EMF-FVM-ren araudia kontuan izanda ikusiko da.

20.- APARKALEKUAK

Erakundeko ibilgailuentzat, osasun langileentzat, babes zibilekoentzat. aparkalekuak egokituko dira, eta aparkaleku publikoetaraino nola iritsi karteekin adieraziko da.

21.- PUBLIKOAREN EGOERA IRTEERAN ETA HELMUGAN

Maskara erabiltzea derrigorrezkoa da ikusleen artean 1.5 metroko segurtasun distantzia izan arren, pertsona bakoitzaren ardura da.

Irteerako eta helmugako eremuak ondo mugatuta eta zigilatuta egongo dira, eta horietara antolakuntzak baimendutako langileak bakarrik sartu ahal izango dira.

Antolakundeak boluntarioak izango ditu uneoro, segurtasun distantzia bermatzeko eta maskara behar bezala erabiltzeko.

Etengabe gogoratuko da megafoniaz jendeak segurtasun-distantzia mantentzea eta maskara behar bezala erabiltzea.

Megafonia bidez eta boluntarioekin ibilbidean zehar sakabanatzea gomendatuko zaio jendeari, proba ikusteko eta jende pilaketa txikiak saihesteko, pertsona bakoitzaren ardura dela gogoraraziz.

ARGIBIDEAK: ordiziamaratoia@majori.eus

